

IRAKASKUNTZA-GIDA

2017/18

Ikastegia

231 - Psikologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25052 - Ikaskuntza, Jokabidea eta Kognizioa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

"Ikaskuntza, jokabidea eta kognizioa" irakasgaia Psikologiako Graduoko lehenengo mailan kokatuta dago, hain zuen ere, bigarren lau- hilabetean. Oinarrizko psikologiako jakintza arloko derrigorrezko materia dugu. Irakasgaia ondo jarraitzeko beste prozesu kognitiboekin lotura zuzena duela argitu behar dugu. Hain zuzen ere, prozesuen (arreta, pertzepzioa, motibazioa, emozioak, oroimena ...) funtzionamendua, edo metodologiako eta ikerkuntzaren arloan eskuratutako gaitasunak. Helburu nagusia zera da: giza ikaskuntza eta animalien ikaskuntzan parte hartzen duten baldintzak, eta fenomenoaren ezagutza teoriko eta praktikoa eskuratzea. Bukatzeko, eguneroko bizitzan eta arlo profesionaletan azaltzen diren egoeretan ezagutzak nola aplikatzen diren gaitate bultzatu nahi dugu.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- 1.-Ikaskuntza mota eta maila desberdinetan parte hartzen duten ingurumen baldintzak identifikatu, ezagutu eta bereiztea.
- 2.-Ikaskuntza mota desberdinetan ondorioztatzen diren portaerak eta kasu bakoitzean inplikaturik dauden ikaskuntza edukiak, prozesuak eta mekanismo psikologikoak identifikatu, ezagutu eta bereiztea.
- 3.-Gizarte esparru desberdinetan lan egiten duten profesionalentzat eskuratutako ezagutzak duten garrantzia ulertu.
- 4.-Informazio eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta, psikologiarekin zerikusia duen informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea.
- 5.-Modu egokian komunikatzeko gai izatea, ahoz nahiz idatziz. Aurkezpenak eta talde lanak.
- 6.-Ikasketan gaitasunak lortzea, ikaskuntza autonomoa egiteko gai izateko.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1go GAIA.-IKASKUNTZAREN PSIKOLOGIARAKO SARRERA ETA IKASKUNTZA EZ ASOZIATIBOA (1, 2, 3, 4, 5 eta 6 gaitasunak)

- 1.1. Zertaz arduratzen da Psikologia? Zertaz arduratzen da Ikaskuntza?
- 1.2. Ikaskuntzaren definizioak. Ikaskuntza motak. Ikaskuntza mailak.
- 1.3. Ikaskuntza eta oinarrizko prozesu psikologikoak
- 1.4. Portaera motak: Jokabide sortaraziak eta borondatezkoak.
- 1.5.-IKASKUNTZA EZ ASOZIATIBOA. Estimulu baten errepikapenaren efektuak: OHIKUNTZA.
- 1.6. IKASKUNTZA EZ ASOZIATIBOA. Estimulu baten errepikapenaren efektuak: SENTIBERATASUNA
- 1.7. Teoriak:

2en GAIA. BALDINTZAPEN PAVLOVIARRA (1,2,3, 4, 5 eta 6 gaitasunak)

- 2.1.- Baldintzapen Pavloviarraren definizioa, paradigma eta elementuak: SB, SBg, EB eta EBg.
- 2.2. Oinarrizko prozesuak:
- 2.3.- Egoera Esperimentalak:
- 2.4.-Baldintzapen Pavloviarraren Baldintzak
- 2.5. Baldintzapen pavloviar motak:
- 2.6. Estimuluaren aurre azalpenak sortzen dituen eraginak
- 2.7. Estimulu Konplexuen Baldintzapena. Fenomenoak: 2.7.1. Blokeoa
- 2.8. Aplikagarritasunak
- 2.9. Teoriak

3. GAIA- BALDINTZAPEN INSTRUMENTALA (1,2,3 eta 4 gaitasunak)

- 3.1. Baldintzapen instrumentalari buruzko lehen hastapenak. Thorndike eta Skinner: Estimulu bereizgarria, erantzuna eta ondorioaren ereduak.
- 3.2. Ikerketaren gaur egungo ikuspegiak: saio metodo diskretuak eta Moldeaketa.
- 3.3. Elementu nagusiak.
- 3.4. Indartze programak: Sinpleak eta konplexuak.

4. GAIA.- Ikaskuntza eta exekuzioa. (1,2,3,4, 5 eta 6 gaitasunak))

- 4.1. Hautazko portaerak: hautaketaren prozesua.
- 4.2. Autokontrola: Autokontrolarekin zerikusia duten ikasketak
- 4.3. Ikaskuntza, portaera, emozioa, motibazioa eta kognizioa.

5. GAIA.- Ikaskuntza eta egokitu gabeko portaerak. (1,2,3,4, 5 eta 6 gaitasunak))

- 5.1. Indartze negatiboa: ihesa eta saihespena.
- 5.2. Zigorra: positiboa eta negatiboa.
- 5.3. Fobiak, antsietatea eta beldurra.
- 5.4. Ikasitako etsipena eta depresioa.

6. Gaia.- Ikaskuntza pertzeptuala eta kausala (1,2,3 eta 4 gaitasunak)
 - 6.1. Ikaskuntza pertzeptuala: Bereizketa eta generalizazioa.
 - 6.2. Kategorien bidezko eta kontzeptuen ikaskuntza.
 - 6.3. Arrazoiketa motak
7. Gaia.- Ikaskuntza tenporala, motorra eta espaziala (1,2,3 eta 4 gaitasunak)
 - 7.1. Denborarekin eta espazioarekin lotuta ikaskuntza eta kognizioak.
 - 7.2. Gihar gaitasunen ikaskuntza.
 - 7.3. Lekuarekiko ikaskuntza eta erantzun-ikaskuntza. Kognizioak.
8. Gaia.- Giza ikaskuntza. (1,2,3 eta 4 gaitasunak)
 - 8.1. Imitazioa, behaketa eta mimetismoa.
 - 8.2. So eginezko ikaskuntza. Modelaketa.
 - 8.3. Gogamenaren teoria: altruismoa eta iruzurkeria.
 - 8.4. Ikaskuntza kooperatiboa.
 - 8.5. Ikaskuntza emozionala.

ATAL PRAKTIKOA: JARDUERAK

- a) Gelako praktikan: Ikaskuntza asoziatiboarekin eta ez asoziatiboarekin zerikusia duten fenomenoak identifikatu eta bereizteko esperimenduak azaldu.
- b) Ordenagailu praktika: 1. Praktika: Ikaskuntza ez asoziatiboa: ohikuntza, estimuluen arteko bereizketa (1,2,3, 4 eta 5)
2. Praktika: Baldintzapean pavloviarraren oinarritzko fenomenoak: lorpena, iraungipena, berez oneratzeko. Eta Baldintzapean instrumentala: Moldeaketa (1,2,3, 4 eta 5)
3. Praktika: Lekuko ikaskuntza: Igeriketa birtuala erabiliaz (1,2,3, 4 eta 5)
Txosten zientifikoa: 2. praktikarekin lotuta txosten bat landu behar da (3 eta 4)
C.- Tailer ez industrialak: Landuko diren gaitasunak (1,2,3, 4 eta 5). Gaia bereziak:
 -  -Ikaskuntza ez asoziatiboa: ohikuntza-sentiberatasuna
 -  -Drogekiko tolerantzia baldintzatua
 -  -Hautaketa portaera, autokontrola eta inpulsiotasuna
 -  -Ikasitako etsipena eta depresioa
 -  -Drogen abusoak
 -  -Fobiak eta osasun lekuekiko abertzioakLana: Goian proposatu diren gaiak kontutan izanik lan bat poster itxurarekin landu behar duzue. Gaiarekin zerikusia duten materiala irakurri, kasuak bilatu, poster zientifikoa osatu, emaitzen taulak edota irudiak erabili.

- Ebaluatuko dena: aurkezpena, eta defentsa.
D.-Mintegiak. Posterra prestatzen joateko talde-tutoretza.

METODOLOGIA

Ikaslearen gidak jasotzen duen bezala atal teorikoaren ebaluaketa % 60 suposatzen du eta atal praktikoaren ebaluaketa % 40.

- A) ATAL TEORIKOAN: bi azterketa partzialak egingo dira (6 puntu).
-I. Partziala (1-3 Gaiak): Lauhilekoaren 11.astearen proposatzen dugu.
-II. Partziala (4-8 Gaiak): Maiatza- Ekaineko Data ofizialean.
Azterketa mota: testa (proba objektiboa), 40 galdera bakoitzeko.
Zuzenketa sistema: Erantzun egokiak – (Akatsak / n-1).

B) ATAL PRAKTIKOAN: Gure kasuan metodologia aktibo mistoa erabiltzea erabaki dugu jarduera desberdinak jasotzen bai ditu (4 puntu).

JARDUERAK:

- 1.-Portafolioa: ikasle koadernoan ariketak; kasuak, arazoak, simulazioak,....
 - 2.-Txosten zientifikoa: Sniffy arratoi birtualarekin loturiko fenomeno batzuen txosten zientifikoa.
 - 3.-Posterra: Aukeratutako Jarduera hau proiektuaren metodoarekin zerikusia duela defendatuko nuke. Psikologian txosten idatzia lantzea litzateke. Besteak beste ikaskideen lankidetzak, eta era berean ikasketa autonomoa (informazioa bilatu, bildu eta kudeatu) suspertzea ditu helburu nagusitzat.
- Prozesua abian jartzeko aldeztu aurretik pauso batzuk eman behar dira:
- Mintegiak erabiliko ditugu taldeak osatzeko eta gaiak aukeratzeko.
 - Lanarekin zerikusia duten zereginak hainbat praktika modalitateetan burutzen dira: ordenagailu praktikan (OP); gelako praktikan (GP) eta TA.
- *)Jarduera estrak (+ % 10 estra):
- Praktika bat asmatu, edo Hitzaldietara joan eta fitxa bete edo artikulua estren irakurketa eta azalpena
 - Nota finala = 6 (teoria) + 4 (praktikak) = 10 [+ 1 (jarduera estrak)]

OHARRA: sakonago garatuta dago E-gelan dagoen Ikaslearen Gidan.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	34	2	15		6		3		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	51	3	22,5		9		4,5		

Legenda:

M: Maistrala S: Minteia GA: Gelako d. GL: Laboratediko d. GO: Ordenaailuko d.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa d.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 60
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20
- Portfolioa % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazioan aintzat hartuko dira bai irakasgaiaren berariazko gaitasunak zein ikas-mailako eta zeharkako gaitasunak. Teoriari dagokion haztapen-neurria % 60a da eta praktikari, berriz, % 40a da.

Ikasle guztiek ebaluatuak izateko eskubidea daukate. Edozein modutan, irakasgaia gainditzeko bi atalak (teorikoa eta praktikoa) gainditu behar ditu. Dena dela, irakasgai honetan bi ebaluazio mota aurreikusi ditugu:

A)Ebaluaketa arrunta: Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

Azterketa Finalean zati guztiak gainditu behar dira irakasgaia aurrera ateratzeko. Hots, atal teorikoa (3) naiz praktikoa (2) gainditu behar dituzue. Atal praktikoa: 2 lan bat garatuaz (puntu 2)+ azterketa praktikoa (2 puntu). Lanak: bat) gai aplikatu bati buruzko lana; bigarrena)Sniffy arratoi birtuala.

Formatua: berrikuspen teorikoa,edo proiektu bat izan daitezke. Azterketa praktikoa: ikasturtean zehar aztertu diren fenomenoen galdera irekiak erantzun behar dira. Irakasgaia gainditzeko bi atalak gainditu behar dira: teorikoa eta praktikoa.

B)Bigarren ebaluazio mota, etengabeko ebaluazioa da. Ebaluazio mota honetan parte hartu ahal izateko ikasleek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1.Ikasle-talderen batean parte hartzea.
- 2.Eskatzen zaizkien lan guztiak dagokionean ematea.
- 3.Irakasleak jartzen dituen ebaluazio-probetan parte hartzea.

ATAL TEORIKOA.- Proposatzen dugu, bi azterketa partizala egitea. Lehenengo azterketa, aste santua baino lehen burutuko da eta (1-3 gaiak)sartuko dira. Beste irakasleekin adosteke dago. Atal honek azken notaren % 30 balio du. Bigarren azterketa, deialdi ofizialarekin batera egingo da (% 30). Azterketa teorikoan erabiliko den formula honakoa duzue. Formula: Erantzun egokiak – Akatsak/ alternatibak -1.

Atal teorikoa gainditzeko erdia atera behar da beste jarduera praktikoeekin batura egiteko. Gainontzeko, % 40 atal praktikoeetan antolatu diren jarduera eta lanak beteaz lortu daiteke.

PRAKTIKA ALORREAN: Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) Metodologia jarraituko dugu Tailerretan, Konputagailu-praktiketan eta Gelako Praktiketan. Ikaslearen koadernoan izango da ikasleek ikasturte hasieratik erabiliko duten gida-liburua praktikak egiteko. Notaren haztapen-neurriak honela banatzen dira:

-Ikaslearen koadernoan (portafolioa): Eskola teorikoetan, konputagailu- gelatan, gelako praktiketan eta mintegietan (% 20). Ikasleek koadernoan jarduera desberdinetan proposatzen diren ariketak, galde-sortei erantzun, txostenak eta abar bete behar ditu.

-Taldea txostenak egin eta defendatu. Tailer ez industrialetan lan aplikatuei buruzko lanak taldea idatzita ekarri eta aurkeztu eta defendatu behar dituzue (% 10). Lana taldea egin eta defendatu. Bestalde, beste lan bat hirunaka egin behar duzue. Arazoaren ebazpenarekin zerikusia duen txostena (% 10).

-Lan Gehigarriak. Ikasleek bere kabuz erabaki dezakete jarduera gehigarri desberdinak betetzen dituen ala ez (% 10). Irakasgaia gainditzeko derrigorrez bi atalak gainditu behar dira.

Praktiketarako ikasle-taldeak 6 kide bitartekoak izango dira. Edozelan ere, ebaluazioa beti indibiduala izaten da. Lan batzuk ikasle-taldearenak eta bestetzuk norbanakoarenak.

Irakasgaiaren ebaluaketan zeharkako gaitasunen lorpen maila kontutan hartuko da. Horretarako, tresna bereziak erabiliko ditugu (rubrikak).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- 1.– Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.
- 2.– Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.
- 3.– Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jarduera izango ditu, emaitzak ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzak ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Apunteak.
- Ikasgaiaren praktika liburua.
- Irakurketak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- ALLOWAY, T., WILSON, G. y GRAHAM, J. (2006). Sniffy. La rata virtual. Pro versión 2.0. Madrid: Thomson.
- BAYÉS, R. Y PINILLOS, J.L. (1989). Aprendizaje y condicionamiento. Volumen 2. Mayor, J. y Pinillos, J.L. Tratado de psicología general. Madrid: Alhambra Universidad.
- BANDURA, A. (1984). Teoría del aprendizaje social. Madrid: Espasa-Calpe.
- CANDIDO, A (2000). Introducción a la psicología del aprendizaje. Madrid: Biblioteca Nueva.
- DICKINSON, A. (1984). Teorías actuales del aprendizaje animal. Madrid: Debate.
- DOMJAN, M. (2002). Bases del aprendizaje y el condicionamiento. (Segunda Edición) Jaén: del Lunar.
- DOMJAN, M. (2003). Principios de aprendizaje y conducta (Quinta edición). Madrid: Thomson.
- DOMJAN, M. eta BURKHARD, B. (1994). Ikaskuntza eta Jokabide Mekanismoak. EHUko argitalpen etxea. Bilbo.
- FROUFE, M. (2004). Aprendizaje asociativo. Principios y aplicaciones. Madrid: Thomson.
- IRAOLA, J. eta SOROA, M. (2000). Animalia ikaskuntza: Oinarrizko fenomenoen praktika-gida. /EHUko argitalpen etxea, Bilbao.
- KLEIN, S.B. (1994). Aprendizaje. Principios y aplicaciones. Madrid: McGraw-Hill.
- KRAUSE, M.A. (2006). Cuaderno de trabajo. Principios de aprendizaje y conducta. (Quinta edición). Madrid: Thomson.
- MACKINTOSH, N.J. (1988). Condicionamiento y aprendizaje asociativo. Madrid: Alhambra Universidad.
- MALDONADO, A. (1998). Aprendizaje, cognición y comportamiento humano. Madrid: Biblioteca Nueva.
- MAS, B. Y PELLÓN, R. (1987). Modelos atencionales del condicionamiento clásico. MADRID: U.N.E.D.
- PEARCE, J.M. (1998). Aprendizaje y cognición. Barcelona: Ariel.
- PINEÑO, O., VADILLO, M.A. Y MATUTE, H. (2007) (Eds.). Psicología del aprendizaje. Badajoz: Abecedario.
- RACHLIN, H. (1979). Comportamiento y aprendizaje. Barcelona: Omega.
- ROSAS SANTOS, J.M. (Ed.) (2002). Teorías asociativas del aprendizaje. Jaén: del Lunar.
- TARPY, R.M. (1999). Aprendizaje: teoría e investigación contemporánea. Madrid: McGraw-Hill.
- VILA, J., NIETO, J. Y ROSAS, J.M. (Eds.) (2003). Investigación contemporánea en aprendizaje asociativo. Jaén: del

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Aguado Aguilar, L. (Ed.) (1989). Cognición comparada. Madrid: Debate.
- Bandura, A. y Walters, L. (1978). Aprendizaje social y desarrollo de la personalidad. Madrid: Alianza Universitaria.
- Boakes, R.A. (1989). Historia de la psicología animal. De Darwin al conductismo. Madrid: Alianza Universitaria.
- Hilgard, E.R. y Bower, G.H. (1975). Teorías del aprendizaje. México: Trillas.
- Honig, W.K. (Ed.) (1975). Conducta operante. México: Trillas.
- Hull, C.L. (1986) Principios de conducta. Madrid: Debate.
- Hulse, S.H., Egeth, H. y Deese, J. (1982). Principios de aprendizaje. México: McGraw-Hill.
- Kimble, C.A. (1969). Hilgard y Marquis, condicionamiento y aprendizaje. México: Trillas.
- Leahey, T. H. y Harris, R. J. (1998). Aprendizaje y Cognición. Madrid: Prentice-Hall.
- Pavlov, I.P. (1972). Reflejos condicionados e inhibiciones. Barcelona: Ediciones Península.
- Pavlov, I.P. (1973). Actividad nerviosa superior. Obras escogidas. Barcelona: Fontanella.

- Pelechano, V. (1980). Modelos básicos de aprendizaje. Valencia: Alfapú s.
- Pellón, r. y Huidobro, A. (2004) (Coords.). Inteligencia y aprendizaje. Barcelona: Ariel.
- Puente Ferreras, A. (2005). Cognición y aprendizaje. Pirámide.
- Ribes Iñesta, E. (2002) (Ed.). Psicología del Aprendizaje. México: Manual Moderno.
- Rosas Santos, J.M. (1998). Aprende condicionando. Jaén: del Lunar.
- Rosas, J.M., García-Fernández, E. y Sánchez, F. (2005). Fundamentos del aprendizaje humano. Jaén: Del Lunar.
- Schoenfeld, W.N. (1979). Teorías de los programas de reforzamiento. México: Trillas.
- Skinner, B.F. (1974). Ciencia y conducta humana. Barcelona: Fontanella.
- Skinner, B.F. (1976). La conducta de los organismos. Barcelona: Fontanella.

Aldizkariak

A.-En inglés:

- 1.Behavioral and Brain Sciences.
- 2.Behavioural Processes.
- 3.Comparative Cognition and Behavior Reviews.
- 4.Learning and Behaviour.
- 5.Learning and Motivation.
- 6.Journal of Experimental Psychology: Animal Behaviour Processes.
- 7.The Quarterly Journal of Experimental Psychology.
- 8.Psychological Review.
- 9.Psychological Bulletin.

B.-En castellano:

- 1.Psicológica. Revista de Metodología y Psicología Experimental.
- 2.Psicothema.
- 3.Anales de Psicología.

C.-En Euskera:

- 1.Elhuyar.
- 2.Uztaro.

Interneteko helbide interesgarriak

Laboratorio Virtual de Aprendizaje

Se pueden realizar demostraciones o participar en experimentos sobre aprendizaje y condicionamiento

<http://www.labpsico.com>

<http://paginaspersonales.deusto.es/matute/>

American Psychological Association: <http://www.psych.hanover.edu/research/exponent.html>

Experimentos de psicología:

<http://www.olemiss.edu/PsychExps/>

Videos de Aprendizaje y Condicionamiento

<http://go.owu.edu/~deswartz/introduction.html>

<http://academic.brooklyn.cuny.edu/psych/delam/53.1/clips.htm>

www.psychology.sbc.edu/animalpsych.html

http://www.sqab.org/SQAB_Tutorial_Video_Tapes.html

Sociedades científicas españolas relacionadas directamente con el tema

Sociedad Española de Psicología Comparada (SEPC)

<http://www.ujaen.es/huesped/sepc/>

Sociedad Española de Psicología Experimental (SEPEX)

<http://www.sepex.net>

OHARRAK